# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-392

12/2000 DEKRETUA, urtarrilaren 25ekoa, Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen bidez, Euskal Estatistika Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-erakunde autonomoa eratu zen, eta beraren eskumenak lege horren beraren 29. artikuluan aipatutakoak dira.

Estatistikak produzitzea eta zabaltzea da Erakundearen jarduera garrantzitsuenetako bat. Aski ezaguna da nolako garrantzia duen eremu askotan (jakintza-, kultura-, enpresa-jarduerak, etab.) estatistika publikoak eskaintzen dituen ekonomia, gizarte eta biztanleria arloko datuak jakiteak. Horretarako, oinarrizko bi zutabe daude, hala nola: lehenik, euskal estatistika-planak, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistika-jarduera aldi batean antolatzen duten tresnak, eta, bigarren, urteko estatistika-egitarauak, planaren indarraldian hura garatzen eta betearazten duten tresnak.

Garrantzi bereziko beste alderdi bat, bestalde, 4/1986 Legeak estatistika gaietan Euskal Estatistika Erakundeari ematen dion ordezkatze-ahalmena da. Hori dela eta, erakunde horri dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeko partaideek estatistikako estatu mailako, eskualde mailako —eta halakorik balego, mundu mailako— erakundeekin dituzten harremanak bideratzea.

Gainera, erakundearen egitekoen artean, honako hauek nabarmentzen dira: biztanleria eta gizarte arloko estatistiken sistema bateratuak osatzea eta iraunaraztea; erakundearen estatistika-jarduerari dagozkion administrazio-xedapenei buruzko lege-aurreproiektuak eta proiektuak prestatzea, bai eta estatistiken datu-bankuko oinarriak ezartzea ere. Horretarako, Erakundeak web-orrialde bat dauka, estatistika publikoaren erabiltzaileek kontsulta dezaten.

Amaitzeko, gehitu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak, aholku lanetarako, kide anitzeko bi organo dauzkala, hala nola: Euskal Estatistika Batzordea eta Euskal Estatistika Kon-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-392

DECRETO 12/2000, de 25 de enero, por el que se establece la estructura orgánica del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

Por el artículo 28 de la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma, se creó el Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, como Organismo Autónomo Administrativo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo sus competencias las previstas en el artículo 29 de la propia Ley.

La producción y difusión estadística constituye una las actividades más importantes del Instituto. Es de sobra conocida la importancia que para muchos campos de la actividad científica, cultural, empresarial, etc. tiene el conocimiento de los datos de orden económico, social y demográfico aportados por la estadística pública. Para ello, se dispone de dos pilares fundamentales, a saber: el Plan Vasco de Estadística, como instrumento ordenador de la actividad estadística de la Comunidad Autónoma durante un período de tiempo, y los Programas Estadísticos Anuales, que son el instrumento de desarrollo y ejecución del Plan durante los años de vigencia de éste.

Otro aspecto de especial relevancia viene determinado por la facultad de representación en materia de estadística de la Comunidad Autónoma que la Ley 4/1986 otorga a Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística. A este respecto, es de su competencia la canalización de todas las relaciones de los integrantes de la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi con los Institutos Estatales, Regionales y, en su caso, Internacionales de Estadística.

Además, destacan como cometidos del Instituto la elaboración y mantenimiento de sistemas integrados de estadísticas demográficas y sociales, de cuentas económicas y de indicadores sociales y económicos; la preparación de anteproyectos de Ley y proyectos de disposiciones administrativas que se refieran a su actividad estadística, así como el establecimiento de las bases del Banco de Datos Estadísticos, para lo cual el Instituto dispone de una página Web para su consulta por los usuarios de la estadística publica.

Para finalizar, cabe añadir que la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma dispone, en su nivel consultivo, de dos órganos colegiados como son: la Euskal Estatistika-Batzordea / Comisión Vasca de Es-

tseilua. Euskal Estatistika Erakundea da, testuinguru horretan, antolakunde horren gune-osagaia.

Apirilaren 23ko 4/1986 Legearen bigarren xedapen iragankorrak zehazten zuenez, Euskal Estatistika Erakundearen jarduerak Jaurlaritzak dekretu bidez xeda zitzanean hasiko ziren. Agindu hori beteaz, azaroaren 18ko 265/1986 Dekretuaren bidez, Erakundearen egitura organikoa onartu zen.

Urteen igarotzeak erakutsi duenez, Erakundearen egiturak eta funtzionamendu-arau batzuek doitze egoki bat behar dute; hori dela eta, guztiz beharrezkoa ikusi da egitura organikoa aldatzea. Lehen neurri gisa, otsailaren 9ko 91/1999 Dekretuaren bidez, 265/1986 Dekretuan aipatutako zuzendaritza-egitura aldatu zen; horren eraginez, Idazkaritza Nagusia desagertu zen.

Antolaketa-arazoen ildotik, lehendakariaren urtarrilaren 4ko 1/1999 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Hain zuzen, dekretu horren azken xedapenetatik lehenengoaren bigarren paragrafoak zehazten duenez, erregelamendu organikoek honako antolaketa-irizpide hauei jarraituko diete: egiturak soiltzea, egiteko-arloak batzea, eduki zabaleko egiteko-arloak eraikitzea, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiez ahalik eta gehien baliatzea.

Dekretu honen bidez, antolaketa- eta jardute-egitura bat eratu nahi litzateke, arestian aipatutako arauan aipatutako modernizatze-irizpideak jasoko dituen egitura bat, hain zuzen.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

LEHEN KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*– Izaera, erregimen juridikoa eta egoitza.

1.– Euskal Estatistika Erakundea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen bidez administrazio-izaerako erakunde autonomo gisa eratu zen, eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikita dago.

tadística y el Euskal Estatistika-Kontseilua / Consejo Vasco de Estadística. El Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística se configura, en este contexto, como el elemento nuclear de esta organización.

La Disposición Transitoria Segunda de la Ley 4/1986, de 23 de abril, fija el inicio de las actividades de Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística cuando lo disponga el Gobierno mediante Decreto. En cumplimiento de dicho mandato, por Decreto 265/1986, de 18 de noviembre, se aprobó la estructura orgánica del Instituto.

El transcurso de los años ha demostrado que alguna de las estructuras y formas de funcionamiento del Instituto precisan de un adecuado ajuste, con lo que la modificación de su estructura orgánica se ha revelado a todas luces necesaria. Como primera medida, por Decreto 91/1999, de 9 de febrero, se modificó la estructura directiva prevista en el Decreto 265/1986, lo que dio lugar a la desaparición de la Secretaria General.

Al hilo de las cuestiones organizativas, el párrafo segundo de la Disposición Final Primera del Decreto 1/1999, de 4 de enero, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, señala que los reglamentos orgánicos seguirán los siguientes criterios organizativos: aplanamiento de estructuras, agrupamiento de áreas funcionales, construcción de áreas funcionales con amplios contenidos, identificación de áreas funcionales de staff no estructurales y el máximo aprovechamiento de las tecnologías de la información.

Mediante el presente Decreto, se pretende configurar una estructura organizativa y funcional, en la que se reflejen los criterios de modernización previstos en la norma arriba aludida.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 25 de enero de 2000

DISPONGO:

CAPÍTULO PRIMERO
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Naturaleza, régimen jurídico y sede.

1.– El Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, de conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se configura como un organismo autónomo de carácter administrativo, adscrito al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.– Euskal Estatistika Erakundeak izaera juridiko berezia eta bere helburuak betetzeko asmoz jarduteko gaitasun osoa ditu. Erakunde horren erregimen juridikoa honako hauek arautzen dute: alde batetik, Euskal Herriko Herri Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean diren legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, eta bestetik, erakunde autonomoek bete beharreko gainerako xedapen guztiek.

3.– Euskal Estatistika Erakundea Vitoria-Gasteizen kokatzen da, Arabako Lurralde Historikoan.

*2. artikulua.–* Eskumenak.

1.– Euskal Estatistika Erakundeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta lege hori garatzeko arauetan aipatutako eskumenez baliatzea.

2.– Dituen eskumenak baliatuz, bekak, laguntzak eta beste sustapen-neurri batzuk deitu eta eman ahal izango ditu Euskal Estatistika Erakundeak, betiere Euskal Herri Administrazioaren estatistikako jarduera eta produkzioa ikertzeari, irakasteari, zabaltzeari eta ezagutarazteari begira.

BIGARREN KAPITULUA
GOBERNU ORGANOA

*3. artikulua.–* Gobernu-organoa.

1.– Zuzendaritza Nagusia da Euskal Estatistika Erakundearen organo gorena.

2.– Euskal Estatistika Erakundeko zuzendari nagusia lehendakariak izendatuko du eta, egokitzat joz gero, kargutik kenduko du, Erakundea atxikita dagoen saileko sailburuaren proposamenez.

3.– Erakundeko zuzendaritza nagusia hutsik dagoenean, edo zuzendari nagusia kanpoan edo gaixorik dagoenean, hari egotzitako egitekoak 5. artikuluan aipatutako organoetako arduradunek beteko dituzte bertan ezarritako hurrenkeran, kontrako ebazpen adierazirik edo legezko xedapenik ezean, non eta egiteko horiek, hutsunea gertatu aurretik edo hutsik dirauen bitartean, ez zaizkion beste norbaiti eskuordetzan eman.

*4. artikulua.–* Erakundeko zuzendari nagusiaren eskumenak.

1.– Erakundeko zuzendariari dagokio apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 31. artikuluan aipatutako eskumenez baliatzea, bai eta indarrean dauden arauen arabera dagozkion beste eskumenez baliatzea ere.

2.– El Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística tiene personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el ejercicio de sus competencias. Su régimen jurídico se rige por lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, por la Ley 4/1986 y por las demás disposiciones aplicables a los organismos autónomos.

3.– La sede del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística se establece en el municipio de Vitoria-Gasteiz, del Territorio Histórico de Araba/Alava.

*Artículo 2.–* Competencias.

1.– Corresponde al Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística el ejercicio de las competencias previstas en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en las normas de desarrollo de la misma.

2.– En el ejercicio de sus competencias, el Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística podrá convocar y otorgar becas, ayudas y otras medidas de fomento, destinadas a favorecer la investigación, la docencia, la difusión y el conocimiento de la actividad y la producción estadística de la Administración Pública Vasca.

CAPÍTULO SEGUNDO
ÓRGANO DE GOBIERNO

*Artículo 3.–* Órgano de Gobierno.

1.– La Dirección General es el supremo órgano del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

2.– El Director General del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística será nombrado y, en su caso, cesado por el Lehendakari, previa deliberación del Gobierno, a propuesta del Consejero del Departamento al que esté adscrito el Instituto.

3.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad del Director General del Instituto, las funciones atribuidas al mismo serán ejercidas, en el supuesto de que no hayan sido delegadas antes de producirse tal situación y mientras dure la misma, por los responsables de los órganos previstos en el artículo 5 y en el orden establecido en el mismo, salvo resolución expresa o disposición legal en contrario.

*Artículo 4.–* Competencias del Director General del Instituto.

1.– Corresponde al Director General del Instituto el ejercicio de las competencias previstas en el artículo 31 de la Ley 4/1986, de 23 de abril, y de cuantas pudieran corresponderle de acuerdo con la normativa vigente.

2.– Zehazki, egiteko hauetaz baliatuko da:

a) Erakundearen legezko eta judizioz kanpoko ordezkaritza.

b) Administrazio-zuzendaritza, eta Erakundearen jarduerak bultzatu, zuzendu eta koordinatzea.

c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10.3 artikuluak langileri gaietan erakunde autonomo bakoitzari egozten dizkion eskumenez baliatzea.

d) Estatistika-langileen prestakuntzarekin lotutako jarduerak bultzatu, zuzendu eta koordinatzea.

e) Erakundearen aurrekontuen aurreproiektua proposatzea, atxikita dagoen sailak onar dezan.

f) Erakundearen gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea.

g) Kontratazio-organoari dagozkion ahalmenez baliatzea.

h) Hitzarmenak eta akordioak izenpetzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren arau orokorren arabera.

i) Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaritza ofiziala estatistika gaietan.

j) Estatistika-planen aurreproiektuak eta estatistika-egitarauen proiektuak osatzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoak estatistika gaietan Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta mundu, estatu eta eskualde mailako estatistika-erakunde eta -antolakundeekin dituen harremanak bultzatu eta zuzentzea.

l) Euskal Estatistika Antolakundearen estatistika-jarduera planifikatu, normalizatu eta harmonizatzea.

3.– Erakundeko zuzendari nagusiaren eskumen eta egitekoak eskuordetzan eman ahal izango zaizkie 5. artikuluan aipatutako organoetako arduradunei, salbu eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10.1.c) artikuluak aipatzen dituen izendapen libreko lanpostuak hornitzea.

## HIRUGARREN KAPITULUA
## KUDEAKETAKO ADMINISTRAZIO ORGANOAK

*5. artikulua.–* Kudeaketako administrazio-egitura.

1.– Euskal Estatistika Erakundeko zuzendari nagusiaren menpe daude honako organo hauek, eta zuzendariordetza maila dute:

a) Koordinazio Tekniko eta Zabalkundeko Zuzendariordetza.

b) Estatistika Produkzio eta Analisiko Zuzendariordetza.

2.– En concreto, ejercerá las siguientes funciones:

a) La representación legal y extrajudicial del Instituto.

b) La dirección administrativa y el impulso, dirección y coordinación de las actividades del Instituto.

c) El ejercicio de las competencias que en materia de personal atribuye a cada Organismo Autónomo el artículo 10.3 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

d) El impulso, la dirección y la coordinación de las actividades relacionadas con la formación del personal estadístico.

e) La propuesta, para su posterior aprobación por el Departamento al que este adscrito, del Anteproyecto de Presupuesto del Instituto.

f) La autorización de los gastos y la ordenación de los pagos del Instituto.

g) El ejercicio de las facultades correspondientes al órgano de contratación.

h) La suscripción de convenios y acuerdos, en el marco de las normas generales de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

i) La representación oficial de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia estadística.

j) La elaboración de los Anteproyectos de los Planes y de los Proyectos de los Programas Estadísticos.

k) El impulso y dirección de las relaciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia estadística con la Organización Estadística Vasca y con los Institutos y Organizaciones Internacionales, Estatales y Regionales de Estadística.

l) La planificación, normalización y armonización de la actividad estadística de la Organización Estadística Vasca.

3.– Las competencias y funciones del Director General del Instituto podrán ser delegadas en los responsables de los órganos previstos en el artículo 5, salvo la provisión de puestos de libre designación a que hace referencia el artículo 10.1.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

## CAPÍTULO TERCERO
## ÓRGANOS ADMINISTRATIVOS DE GESTIÓN

*Artículo 5.–* Estructura administrativa de gestión.

1.– Del Director General del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística dependen los siguientes órganos con el rango de Subdirección:

a) La Subdirección de Coordinación Técnica y Difusión.

b) La Subdirección de Producción y Análisis Estadístico.

2.– Oro har, zuzendariordetzei dagokie:

a) Zuzendariordetzaren jarduerak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, betiere Erakundeko zuzendari nagusiak ezartzen dituen jarraibideen arabera.

b) Zuzendariordetzari egotzitako material-, diru- eta giza bitartekoak zuzendu eta koordinatzea.

3.– Lehenengo paragrafoan aipatutako kudeaketako kide anitzeko organoak eta organoen azpitiko administrazio-atalak Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren agindu baten bidez ezarriko dira.

*6. artikulua.*– Koordinazio Tekniko eta Zabalkundeko Zuzendariordetza.

Koordinazio Tekniko eta Zabalkundeko Zuzendariordetzari, dekretu honetako 5.2 artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako egiteko berariazko hauek ere badagozkio:

a) Euskal estatistika-planean eta urteko estatistika-egitarauetan agertzen diren estatistika-eragiketa guztien egitasmo teknikoak gainbegiratzea, eta izaera teknikoko kontu-ikuskaritzak egitea.

b) Erakundearen jardunari aplikatzeko metodologia berriak ikertzea eta garatzea, eta izaera horretako Europa eta mundu mailako egitasmoetan parte hartzeari lehentasuna ematea.

c) Erakundearen informazio- eta telekomunikazio-sistemak diseinatu, garatu, iraunarazi eta ezartzea, eta horretarako, sistema-plan egokiak osatzea eta Erakundean arlo horretan erabiliko diren estandarrak proposatzea, otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, hau da, informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen dekretuaren arabera.

d) Merkatuan dauden informatika- eta telekomunikazio-produktuak aztertzea, Erakundearen jardunean erabili ahal izateari begira.

e) Estatistika-eragiketen fase bakoitzean kalitate-prozedurak ezartzea.

f) Estatistika-marketineko eta merkatu-prospekzioko lanak egitea, bai eta erabiltzaileen asebetetasunari buruzko azterketak ere, eta antzematen diren informazio-beharrak betetzea ahalbidetuko duten azterketak, analisiak eta estatistika-eragiketak egin daitezen proposatzea.

g) Zuzendari nagusiarekin elkarlanean aritzea Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko, estatuko eta mundu osoko estatistika-erakundeekin dituen harremanak koordinatzen, bai eta unibertsitateekin, hedabideekin, eragile ekonomiko eta sozialekin, erabiltzaileekin eta Erakundearen bezeroekin dituen harremanak koordinatzen ere.

2.– Con carácter general, corresponde a las Subdirecciones:

a) La programación, impulso, dirección, coordinación y control de las actividades de la Subdirección, de acuerdo con las directrices que fije el Director General del Instituto.

b) La dirección y coordinación de los medios materiales, económicos y humanos asignados a la Subdirección.

3.– Los órganos colegiados de gestión y las unidades administrativas inferiores a los órganos previstos en el párrafo primero, se establecerán mediante Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 6.*– Subdirección de Coordinación Técnica y Difusión.

A la Subdirección de Coordinación Técnica y Difusión, además de las señaladas en el artículo 5.2 del presente Decreto, le corresponden las siguientes funciones específicas:

a) La supervisión de los proyectos técnicos de cada operación estadística incluida en el Plan Vasco de Estadística y en los Programas Estadísticos Anuales y la realización de auditorías de carácter técnico.

b) La investigación y el desarrollo de nuevas metodologías de aplicación a la actividad del Instituto, dando prioridad a la participación en proyectos europeos o internacionales de esta naturaleza.

c) El diseño, desarrollo, mantenimiento e implantación de los sistemas de información y de telecomunicaciones del Instituto, elaborando para ello los correspondientes Planes de Sistemas y proponiendo los estándares a emplear en el Instituto en estas materias, de conformidad a lo establecido en el Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones.

d) La investigación de productos informáticos y de telecomunicaciones existentes en el mercado, cara a su posible utilización en la actividad del Instituto.

e) El establecimiento de procedimientos de calidad en las diferentes fases de las operaciones estadísticas.

f) La realización de actividades de marketing estadístico y de prospección de mercado, así como de estudios de satisfacción de usuarios, y la propuesta de realización de estudios, análisis u operaciones estadísticas que permitan cubrir las necesidades de información que se detecten.

g) La colaboración con la Dirección General en la coordinación de las relaciones del Instituto con las organizaciones estadísticas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, del Estado e internacionales, así como con las Universidades, medios de comunicación, agentes económicos y sociales, usuarios y clientes del Instituto.

h) Euskal Estatistika Antolakundeak erabiliko dituen arau, sailkapen, kode eta izendegien sistemak osatzea eta iraunaraztea.

i) Zuzendaritza nagusiaren ildoei jarraiki, Erakundearen zabalkunde-politika ezartzea, zabalkunde-produktu egokiak gauzatuz eta Erakundearen Internet zerbitzariaren edukiak iraunaraziz eta hobetuz.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikako datu-bankua diseinatu, garatu, iraunarazi eta ezartzea.

k) Erakundearen Informazio Zerbitzua zuzentzea, bai egoitza nagusian, bai herrialdeetako bulegoetan ere.

l) Bilduma-izaerako zabalkunde-produktuak proposatzea eta, behar izanez gero, egitea.

m) Erakundeari egiten zaizkion kanpotiko informazio-eskaerak eta laguntza teknikoko eskabideak bideratzea, eta zuzendariordetzari dagozkionei erantzutea.

n) Estatistika-etorkiko eta administrazio-etorkiko kanpoko informazio-iturriak (estatistikak egiteko erabil badaitezke) inbentariatzea eta katalogatzea.

o) Euskal Estatistika Antolakundearen estatistika-galdesorten erregistroa eta proiektu teknikoen erregistroa osatzea eta iraunaraztea.

*7. artikulua.*– Estatistika Produkzio eta Analisiko Zuzendariordetza.

Estatistika Produkzio eta Analisiko Zuzendariordetzari, dekretu honetako 5.2 artikuluan adierazitako egitekoez gain, honako egiteko berariazko hauek ere badagozkio:

a) Zuzendariordetzari egotzitako plan eta egitarauetako estatistika-produkzioa proposatu, diseinatu eta garatzea.

b) Estatistika-produkzioaren hobekuntza- eta kalitate- prozesuak sistematizatu eta inplementatzea.

c) Estatistika-informazioan oinarritutako azterketak eta analisiak osatu eta sustatzea.

d) Zuzendari nagusiarekin elkarlanean aritzea estatistika-erakunde eta -organismoekin dituen harremanak sustatzen eta indartzen, ekonomia, gizarte eta biztanleria arloko estatistiken metodologiei buruzko alderdi teknikoetan jarduera koordinatuak bultzatzeko.

e) Landa-lanak koordinatzea: informazio-bilketa, kalitate-kontrolak ezartzea, goi-mailako ikuskaritza eta agente elkarrizketatzaileak, araztaileak, kodifikatzaileak eta ikuskatzaileak prestatzea.

f) Fitxategi-gidazerrendak diseinatu, inplementatu, osatu eta iraunaraztea.

g) Estatistiken sistema bateratuak eta ekonomia, gizarte eta biztanleria arloko adierazleak eta kontu eko-

h) La elaboración y mantenimiento de los sistemas de normas, clasificaciones, códigos y nomenclaturas a utilizar por la Organización Estadística Vasca.

i) El establecimiento, siguiendo las directrices de la Dirección General, de la política de difusión del Instituto, materializando los correspondientes productos de difusión y manteniendo y mejorando los contenidos del servidor Internet del Instituto.

j) El diseño, desarrollo, mantenimiento e implantación del Banco de Datos Estadísticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

k) La dirección del Servicio de Información del Instituto, tanto en su sede central como en sus Oficinas Territoriales.

l) La propuesta y, en su caso, elaboración de productos de difusión de carácter recopilatorio.

m) La canalización de las peticiones externas de información y de las solicitudes de asistencias técnicas que se formulen al Instituto, y la atención de aquéllas que correspondan a la Subdirección.

n) El inventario y catalogación de las fuentes de información externas de origen estadístico o de aquéllas de origen administrativo que sean susceptibles de utilización estadística.

o) La elaboración y mantenimiento del Registro de Cuestionarios Estadísticos y del Registro de Proyectos Técnicos de la Organización Estadística Vasca.

*Artículo 7.*– Subdirección de Producción y Análisis Estadístico.

A la Subdirección de Producción y Análisis Estadístico, además de las señaladas en el artículo 5.2 del presente Decreto, le corresponden las siguientes funciones específicas:

a) La propuesta, diseño y desarrollo de la producción estadística de los Planes y Programas asignada a la Subdirección.

b) La sistematización e implementación de procesos de mejora y de calidad de la producción estadística.

c) La elaboración y promoción de estudios y análisis en base a la información estadística.

d) La colaboración con la Dirección General en el fomento y promoción de las relaciones con Instituciones y Organismos estadísticos con el fin de impulsar actuaciones coordinadas en los aspectos técnicos de la metodología de estadísticas económicas y socio-demográficas.

e) La coordinación de los trabajos de campo: recogida de información, establecimiento de los controles de calidad, alta inspección y formación de los agentes entrevistadores, depuradores, codificadores e inspectores.

f) El diseño, implementación, elaboración y mantenimiento de los Ficheros-Directorios.

g) El diseño, elaboración y mantenimiento de sistemas integrados de estadísticas e indicadores económi-

nomikoak diseinatu, osatu eta iraunaraztea, bai koiuntura mailakoak, bai egiturazkoak ere.

h) Ekonomia, gizarte eta biztanleria arloko estatistiken metodologiari buruzko alderdi teknikoekin lotutako koordinazioa eta aholkularitza.

i) Zuzendariordetzari egotzitako estatistikei buruzko egitasmo teknikoak osatzea.

j) Zuzendariordetzari dagozkion kanpotiko eskariei eta laguntza teknikoko eskariei erantzutea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratuko dira Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa onartzen duen azaroaren 18ko 265/1986 Dekretua eta Euskal Estatistika Erakundearen egitura organikoa onartzen duen Dekretua aldatzeko otsailaren 9ko 91/1999 Dekretua, bai eta dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko eta apalagoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak dekretu hau garatu eta betearazteko legezko xedapenak hartzeko ahalmena du.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko urtarrilan 25ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

cos y socio-demográficos y cuentas económicas, tanto de carácter coyuntural como estructural.

h) La coordinación y asesoramiento en relación con los aspectos técnicos de la metodología de estadísticas económicas y socio-demográficas.

i) La elaboración de los proyectos técnicos de las estadísticas asignadas a la Subdirección.

j) La atención de las peticiones externas y de las asistencias técnicas que correspondan a la Subdirección.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 265/1986, de 18 de noviembre, por el que se aprueba la estructura orgánica del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, y el Decreto 91/1999, de 9 de febrero, de modificación del Decreto por el que se aprueba la estructura orgánica del Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta a la Consejera de Hacienda y Administración Pública para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de enero de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.